



ULIBARRI
EUSKALTEGIA



BIKAINASUNAREKIN KONPROMISOA
COMPROMISO CON LA EXCELENCIA
ULIBARRI



Aurten Ulibarri Euskaltegiak bigarren argazki lehiaketa antolatuko du. Lehiaketaren asmoa euskara ikastearen ingurukoak argazkietan islatzean datza.

Parte hartzaileak:

Argazki lehiaketan Ulibarri Euskaltegian matrikulaturiko ikasleek parte hartu ahal izango dute.

Gaia:

Euskara ikastea.

Parte hartzeko baldintzak:

Argazkiak kamera digitalez egin beharko dira eta ondoko ezaugarriak izango dituzte:

- JPG formatuan bidaliko dira eta bereizmena 2 eta 5 megapixel artekoa.
 - Lan originalak aurkeztu behar dira eta ezingo dira izan beste argazki-lehiaketa batzuetan saritutakoak.
 - Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi argazki aurkez ditzake.
 - Argazkiek izenburua edota oina (testu laburra) idatzita izango dute.
 - Mezuan idatzi obra horren **izenburua** eta **egilearen ezizena**. Autorearen datuak ere (izen-deiturak, NA zenbakia, helbidea, telefonoa, urratsa, ordutegia eta posta elektronikoa) jasota egon behar dira.

Argazkiak aurkezteko epea eta lekua:

Azken eguna 2013ko ekainaren 14a izango da eta argazkiak@ulibarri.org helbidera fitxategia erantsian bidali beharko dira.

Epaimahaia eta epaia:

Argazkigintzan adituak diren kidez osatua egongo da. Epaimahaiak eskumena izango du aurkeztutako argazki guztien artean bat aukeratzeko irabazle. Epaimahaiaren erabakia ezin da eztabaidatu edo ezingo da gaitzetsi. Ekainaren 19an jakinaraziko da epaimahaiaren erabakia.

Jabetza intelektualeko eskubidea:

Aurkeztutako lanen copyright eskubideak Ulibarri Euskaltegiarenak izango dira eta Ulibarri Euskaltegiak eskubidea izango du aurkeztutako argazkiak ustiatzeko.

Sariak:

Hiru sari emango dira:

1. saria: 2013/ 14 ikasturterako ordaindutako (dirutan ez) matrikularen erdia.
2. saria: 2013/ 14 ikasturterako ordaindutako (dirutan ez) matrikularen herena.
3. saria: *Euskal Gramatika Osoa* liburua.

Partaide bakoitzak sari bakarra eskuratzeko aukera izango du.

Sariak jasotzen dituzten eta jasotzen ez dituzten argazkiak:

Lehiaketara aurkeztuko diren irudiak, saridunak zein saririk gabekoak, ez zaizkie euren jabeei itzuliko eta Ulibarri Euskaltegiaren jabetza bihurtuko dira. Erakunde horrek oraingo zein etorkizuneko iragarki, liburuxka, buletin, argitalpen, web-orrialdean edo aldizkarietan horien kopiak egiteko eskubidea du.

Erakusketa:

Epaimahaiak aukeratutako argazkiak ikusgai jarriko dira euskaltegiaren web-orrialdean.

Onespena:

Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek oso-osorik onartzen dituzte oinarri hauek.